

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 487/2019 Erabakia, uztailaren 23koa. Onespena ematea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko lanpostuen zerrenda aldatzen duen ekainaren 25eko 420/2019 Erabakian egindako hutsen zuzenketari

Foru Gobernu Kontseiluaren Erabaki bidez (uztailaren 10eko ALHAO, 79. zenbakia), Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren lanpostu zerrendaren aldaketa onetsi zen.

Akats materiala ikusi da II. eranskineko euskarazko bertsioan, hain zuzen, 136.001 lanpostuari Zentroen arduraduna deitzen zaio, izen zuzena Familia zaintzeko unitatearen burua denean. Ondorioz, akats hori zuzendu beharra dago.

Horregatik, Gizarte Politiken Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak dataren egunean egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Zuzentzea Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 25eko 420/2019 Erabakian (uztailaren 10eko ALHAO, 79. zk.), Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren lanpostu zerrendaren aldaketa onetsi zuenean, euskarazko bertsioan ikusitako akatsa. Ondorioz,

II. eranskinean, hau dioenean:

<u>136.001</u>	<u>Zentroen arduraduna</u>
----------------	----------------------------

Honako hau esan behar du:

<u>136.001</u>	<u>familia zaintzeko unitatearen burua</u>
----------------	--

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Gasteiz, 2019ko uztailaren 23a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua

EMILIO SOLA BALLOJERA